

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4029

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 31koa, HABEko zuzendariarena, 2022-2023 ikasturtean, udalen edo udal erakundeen mendeko euskaltegiei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzen dituena.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 16. artikuluari jarraikiz, HABEk dirulaguntza emango die Erregistroan inskribaturik dauden euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei helduen euskalduntzegintzan burututako jarduna finantzatzeko, HABEk jarritako helburuak lor daitezen.

2022ko Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen duen eta 2021-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 16ko Aginduak, Hizkuntza Politika alorreko helburu estrategikotzat helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du, besteak beste udalen edo udal erakundeen mendeko euskaltegiei zuzendutako dirulaguntzen bidez.

Bidezkoa da, beraz, 2022-2023 ikasturterako udalen edo udal erakundeen mendeko euskaltegiei zuzendutako dirulaguntza-deialdia egitea eta finantzaketa-moduluak ezartzea, eta horiek esleitzeko oinarriak onartzea.

HABEren arau organikoak onartu dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak emandako eskumenez baliatuz, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen testu bateginak araututakoa jarraikiz, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (eta berau garatu duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak) xedatutakoa oinarri izanik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Udalen edo udal erakundeen mendeko euskaltegiei 2022-2023 ikasturterako dirulaguntza-deialdia egin eta oinarriak onartzea.

Bigarrena.– Interesdunei jakinaraztea ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioketela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2022ko abuztuaren 31.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

OINARRIAK

1. oinarria.– Helburua eta zuzkidura ekonomikoa.

1.– Ebazpen honen helburua da udal euskaltegiei 2022-2023 ikasturteko euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzen baldintzak eta prozedura arautzea.

2.– Laguntzarako eman daitezzen kopuruak HABEk bere aurrekontuetan horretarako dituen funtsetatik emango dira, hau da, 12.760.000 euro, diru-kopuru hori izango delarik aurreikusitako laguntza guztien gehienezko muga jarriko duena.

3.– Dirutza hori eskatutako finantzaketa behar guztiei erantzuteko aski ez balitz, dirulaguntzak hainbanatu egingo dira onuradunen artean, deialdi honetan ezartzen diren irizpideei jarraikiz jaso beharko lituzketen kopuruak kontuan izanda.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Ebazpen honen bidez deitutako dirulaguntzen onuradunak HABEren Erregistroan euskaltegi publiko gisa sailkatutakoak izan daitezke, betiere oinarri honetako 2. atalean zehazten diren baldintzak eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotakoak betetzen badituzte.

2.– Honako hauek dira bete beharreko baldintzak:

2.1.– Baldintza orokorrak.

a) HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatuta egotea, eta datu guztiak egunean edukitzea.

b) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikulua aurreikusitako egoeretan ez egotea.

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, dirulaguntza eskatu duten entitateek zerga-betebeharrak egunean dituztela.

c) Dirulaguntza-eskaria zuzen osatzea, deialdiaren II. eranskinean jasotako ereduaren arabera, eta eskariarekin batera 3. oinarrian eskatzen diren agiriak zuzen betetzea eta aurkeztea.

d) Giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatzea eta, ondorioz, dirulaguntza hauen onuradunek ezin izango dituzte agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogariak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.

e) Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzarik lortu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, laguntza publikoak lortzeko zigorrak duten erakundeek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik lortu sexu-bereizkeria dela-eta zigorrak dutenek, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

2.2.– Beste baldintzak.

a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren bitartez ezarritako Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) unez une aplikatzea (uztailaren 31ko EHAA, 144. zk.).

b) Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Agindua, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena betetzea.

c) Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak xedatutakoa betetzea ondorengo baldintzak direla eta: irakaskuntza lokalak, irakasleak eta material didaktikoa.

Halaber, diruz lagundutako C2 mailako ikastaroetako irakasleek C2 mailako euskara-agiria edo baliokidea izan beharko dute, edo maila hori egiaztatze-tik salbuetsita egon beharko dute, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren arabera.

d) Ikasleek matrikula finantza-entitate baten bitartez ordaindu beharko dute eta, gutxienez, zenbateko osoaren herena, ikaslea ikastaroan hasi eta 10 laneguneko epearen baitan. Honetatik at geratzen dira matrikula erakunde publiko batek ordaintzen dien ikasleak.

e) Udalek edo udal erakundeen mendeko euskaltegiek gorde egingo dituzte ikasleen matrikulen transferentzien ordainagiriak.

f) 2022-2023 ikasturterako HABEren zuzendari nagusiak ematen dituen jarraibideak bere osotasunean bete beharko dira. Gainera, helduen euskalduntzean egiten duten jardun osoaren berri eman beharko diote HABEri.

g) Diruz lagungarria den jardueraren aldetik, deialdi honen I. eranskinean jasotzen diren irizpideak bete beharko dituzte.

h) Euskaltegiek diruz lagungarria den jarduerari buruzko informazioa bidali beharko dute HABEri, honek adierazitako euskarri eta epeetan, eta bereziki:

– Euskaltegiaren oinarritzko informazioa, aurreko ikasturteko informazioarekiko aldaketarik eman bada.

– Euskaltegiaren barruko karguak, aurreko ikasturteko informazioarekiko aldaketarik eman bada.

– Ikasturtean aritzen diren irakasle eta beste langile guztiak, hauen jarduera eta titulazioarekin batera.

– Ikasle guztiak, eta hauetako bakoitzaren oinarritzko datuak eta ezaugarriak. Halaber, ikasle bakoitzaren matrikula-ordainketak, ikasten emandako denbora eta aprobetxamenduaren berri.

– Ikastalde bakoitzaren berri, bere ezaugarriak adieraziz (maila, ordutegia, egutegia, eta abar).

3. oinarria.– Eskarien aurkezpena, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Udalek edo udal erakundeen mendeko euskaltegiek, dirulaguntza-eskariak, izapideak eta beharrezko dokumentazioa bide elektronikoa erabiliz soilik aurkeztuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa bitartez (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1046207>).

2.– Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»-ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Elektronikoki ere izapidetu ahal izango da ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

3.– Eskariak eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2022ko azaroaren 4ra bitartekoa izango da.

4.– Aurkeztu beharreko dokumentuak.

a) Pertsonalaren Fitxa: udal euskaltegiako langileria osoaren informazio zehatza, lanpostuen izaera, egoera, langileen zerrenda, karrerako funtzionarioei edo kontratupeko behin betiko langileei aitortzen zaizkien antzinatasun-data eta hirurtekoen kopuruak bereziki zehatzuz.

b) 2022-2023 ikasturterako Plana.

c) Zerga zein Gizarte Segurantza arloko betebeharrak HABEk ofizioz egiaztatzearen aurka agertuz gero, hauek egunean dituela ziurtatzen duten dokumentuak.

4. oinarria.– Aurkeztutako eskariaren akatsak eta hutsuneak zuzentzea.

Eskariak akatsak edota hutsuneak baditu, hamar laneguneko epea emango da hauek zuzentzeko.

5. oinarria.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

HABEren zuzendaritza nagusiari dagokio, Kudeaketa Zerbitzuko Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Ikuskatzaitzaren bitartez, deialdi honetan aurreikusitako kudeaketa-lanak burutzea.

6. oinarria.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

HABEk onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntza pertsonal-beharren eta pertsonal horri aplikatu beharreko soldata- eta antzinatasun-baremoen arabera kalkulatu da, ondoren zehazten diren irizpideei jarraikiz:

1.– Deialdi honen I. eranskinak ezarritakoaren arabera antolatutako ikastaroei aurre egiteko behar eta eskolak ematen dituzten irakasleak babestuko dizkio HABEk 2022-2023 ikasturtean udal euskaltegi bakoitzari, dagokion zuzendari, idazkari akademikoa eta bulegoko pertsonalaz gain.

Irakasle-beharraren gutxieneko unitatea irakasle erdia izango da, horretatik hurbilenekora biribilduz.

Euskaltegi bakoitzari dagokion pertsonal kopurua kalkulatzeko, HABEk ondorengo metodologia jarraituko du.

1) Batu egingo dira:

– 2022ko urrian hasi eta onartutako talde-orduak.

– 2021eko azaroaren 1etik 2022ko irailaren 30 arte onartutako talde orduak.

– Autoikaskuntza ikastereduan, 2021-2022 ikasturteko kitapenean onartu eta talde-ordu bihurtutako matrikulak (matrikula oso bat = 17,5 talde-ordu).

2022ko irailaren 16a, ostirala

2) Guztirako ordu kopurua, irakasleek urteko eman behar dituzten 735 eskola-orduekin zati-tuko da (2010erako Euskal Toki Erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Udalhitz izeneko Hitzarmenak aitortutako eskola-orduen kopuruan oinarrituz).

2.– Diruz lagunduko diren langileen kostuak kalkulatzeko ondoko baremoak erabiliko dira:

Ardura	Soldata gordina			Hirurtekoa	
	2022	2023	Ikasturtea	2022	2023
Zuzendaria	11.389,45	29.043,10	40.432,55	52,58	53,63
Idazkari akademikoa	10.439,40	26.620,48	37.059,88	52,58	53,63
Irakaslea	9.926,11	25.311,58	35.237,69	52,58	53,63
Administraria	8.634,32	22.017,53	30.651,85	47,14	48,08
Administrari-laguntzailea	7.798,68	19.886,64	27.685,32	38,54	39,31

Dirulaguntzen esleipenean, soldataz gain, antzinatasunaren hirurtekoengatik kopurua ere aintzat hartuko da karrerako funtzionarioen eta kontratupeko behin betiko langileen kasuan.

7. oinarria.– Dirulaguntzaren esleipen-ebazpena.

1.– HABEren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bitartez erabakiko da onuradun bakoitzari deialdi honen 6. oinarrian ezarritako irizpideen arabera onartzen zaion pertsonala eta, ondorioz, bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Dirulaguntzen aitortzeari edota, hala dagokionean, ezeztatzeari buruzko ebazpena 2022ko abenduaren 20a baino lehen jakinaraziko da «Nire karpeta»-ren bidez.

3.– Izapidetze elektronikoa izanik, jakinarazpena egindakotzat joko da udal euskaltegiak jaso duela elektronikoki sinatzen duenean. Dena den, hamar egun naturaleko epea igaro eta gero jakinarazpena ireki ezean, izapidea egindakotzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.

4.– Udalen edo udal erakundeen mendeko euskaltegi bakoitzari egindako ebazpenaren jakinarazpenaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da dirulaguntzak ematen dituen esleipen-ebazpena.

5.– Betiere, onuradunei dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea dirulaguntzen itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, eta dagokionean, ezinbestekoa izango da dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko obligazioak ordainduta izatea Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrarekiko.

8. oinarria.– Beste dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Ebazpen honen kontura ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu horretarako beste edozein entitatek eman ditzakeen laguntzekin, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketa gertatzen ez bada.

2.– Gainfinantzaketa gertatzen bada, murriztu egingo da dirulaguntza, dagokion neurrira doitu arte.

9. oinarria.– Dirulaguntzen jarraipena eta ikusketak.

HABEren Ikuskatzailtza arloko langileek ikuska ditzakete euskaltegiak berauek emandako datuak egiaztatzeko, eta bertako arduradunari eska diezazkiokete eskolak emateko erabiltzen

dituen lokalei buruzko berriak, eta bai jardun, ikasle, ikastalde, irakasle, beste langile eta erabiltzen duten material didaktikoari buruzkoak ere.

Ikusketan bertan jasotako informazioa, ikusketa-aktan jaso beharko du ikuskatzaileak, euskaltegiaren arduradunak eta ikuskatzaileak sinatuta. Ondoren, informazio gehigarria eska daskioke ikuskatzaileak euskaltegiari, eta hamar laneguneko epea izango du aurkezteko. Ikuskatzaileak HABEren zuzendari nagusiari helaraziko dio akta/txostena aitortutako dirulaguntzei dagozkien ondorioak har ditzan.

HABEren zuzendari nagusiak behin betiko erabakia hartu baino lehen, euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren arduradunari ikuskatutakoaren akta helarazi beharko dio, honek hamar laneguneko epean dagozkion alegazioak egin ahal izateko.

10. oinarria.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Dirulaguntzak jarraian azaltzen diren epe eta eran ordainduko dira:

Dirulaguntzaren esleipen-ebazpena ematearekin batera, ordainketa hauek egitea onartuko da:

a) Esleitutako dirulaguntza osoaren % 10, abenduan.

b) Esleitutako dirulaguntza osoaren % 40, 2023ko otsailean.

c) Esleitutako dirulaguntza osoaren % 40, 2023ko apiriletik aurrera, udal euskaltegiek 2022ko urri-abendua epeko gastuen zuri-agiriak bidali eta HABEk aztertu eta onartu ondoren.

d) Ikasturte osoari dagozkion gastuen zuri-agiriak jaso eta gero, HABEk dagozkion egiaztapekin egin eta dirulaguntzaren kitapena burutuko du.

2.– Dirulaguntzaren ordainketa baldintzatuta egongo da, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomoek ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitzera.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren datu-basean agertu beharko du.

Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko du, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

11. oinarria.– Zuriketa.

1.– Euskaltegiatako langileen ordainsari gordinak udal kontuhartzailearen ziurtagiri bidez zurituko dira, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 30. eta 31. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, lehen zuriketarekin batera, udal euskaltegiak 2022 urtean izan dituen sarrerak eta gastuak atalez atal zehaztuta eta izapidetze elektronikoa dagoen «Sarrerak-Irteerak» izeneko formularioari jarraikiz aurkeztuko dira.

Azken zuriketarekin batera, udal euskaltegiak 2022-2023 ikasturteko memoria aurkeztuko du.

Gastuak ez zurrizkoak dirulaguntza osorik bertan behera uztea ekarriko du eta, horrez gainera, kasu honetan, ordaindutako kopuruak itzuli beharko dira abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

2.– Aipatutako egiaztagiria HABEri aurkezteko epeak:

a) 2023ko otsailaren 20a, 2022ko urritik abendura bitarteko gastuen zuri-agiriak eta 2022 urteko behin betiko aurrekontu zehatzari buruzko egiaztagiria aurkezteko.

b) 2023ko urriaren 17a, 2023ko urtarril-iraila bitarteko gastuen zuri-agiriak eta 2022-2023 ikasurteko Memoria aurkezteko.

12. oinarria.– Dirulaguntzaren kitapena.

Ikasturtea bukatu ondoren, dirulaguntzaren kitapena egingo da, ondoren zehazten diren irizpideen arabera:

1.– Ikasturteko behin betiko datu errealak eta pertsonal gastuen egiaztagiriak jaso eta egiaztatu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak kitapen-ebazpena emango du, esleipen ebazpenean onartutako laguntza-kopuruak doitu, horrela badagokio.

Honetarako, matrikulazioaren jarraipenerako aplikazio informatikoa baliatuz udal euskaltegiak HABEra bidaltzen dituen datuak izango dira kitapenaren oinarri. Aipatutako doikuntza ondoren zehaztutako irizpideak aplikatuz egingo da:

1.1.– Emandako talde-orduak eta autoikaskuntza matrikula-orduak dirulaguntza aitortzerakoan kontuan hartutakoak baino gutxiago izan badira, esleitutako dirulaguntza proportzio berean doitu da.

1.2.– Aitortutako dirulaguntzaren diru-kopuruak ezingo du gainditu jarduerak sortu dituen kostu errealen diru-kopurua; hala gertatuz gero, dirulaguntzaren diru-kopurua kostu errealen kopurura doitu da.

2.– Dokumentazio frogagarria dirulaguntzaren kontura aurreratutako kopurua estaltzeko adina ez bada, onuradunak behar ez bezala jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko du, HABEk egindako jakinarazpenetik hasita hilabeteko epean, azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak ezarritako prozedurari jarraikiz. Ordainketa edo itzulketa hori emandako dirulaguntzaren behin betiko kitapena izango da.

13. oinarria.– Onuradunaren betebeharrak.

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan araututako betebeharreko hauek izango dituzte:

1.– Jarduera aurrera eramatea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

2.– Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean zuritzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak betetzen direla eta jarduera bera aurrera eramanez dela.

3.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak deialdi honen bitartez esleitutako dirulaguntzak kontrolatzeko dituzten bere eginbeharrak betetzeko eska ditzaizketen informazio oro ematea. Halaber, xedapen horretan ezarritakoaren arabera eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren arabera, beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuko, helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea HABEri. Era berean, laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea laguntza eman duen erakundeari.

4.– Onuradunek publizitate egokia eman beharko diote aitortutako dirulaguntzaren izaera publikoari, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikuluan araututakoari jarraikiz.

Horretarako, laguntza-mota honen bidez diruz lagundutako egitasmo orok HABEk emandako babesaren berri adierazi beharko du egitasmoaren argitan kaleratutako euskarri guztietan, Eusko

Jaurlaritzaren eta HABEren logotipo normalizatua eta «HABEk diruz lagundua» esaldia agerian jarri.

14. oinarria.– Arau-haustek eta ez-betetzek.

Edozein kasutan, deialdi honetako onuraduna lotuta dago azaroaren 11ko 1/1997ko Legegitzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako oinarrizko xedapenetan zehaztuta dauden lege-hausteen eta ez-betetzeen erregimenarekin.

Ez-betetze kasuetan, onuradunak jasotako diru-kopurua, bere berandutze interesekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko du, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak ezarritakoaren arabera (1992ko otsailaren 7ko EHAA).

15. oinarria.– Datuen tratamendua.

Dirulaguntza-deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak eta egiaztatze-prozeduran sortzen direnak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak eta araututakoari jarrikiz, «Euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroaren kudeaketa» eta «Ikaslegoaren kudeaketa» izeneko tratamendu-jardueretan, ondoren zehazten diren helburuetarako:

– HABEk euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentro homologatuen finantzaketarako bideratzen dituen dirulaguntzen kudeaketa.

– HABEri atxikita dagoen euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroaren kudeaketa.

– Udal euskaltegi-tako ikasleen kudeaketa: ikas-prozesua, euskara-mailaren egiaztatpena eta dirulaguntza-proposamena.

HABEren zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikoak den jarduera sustatzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honean: <http://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>.

16. oinarria.– Aplikagarriak diren arauak.

Ebazpen honetan aurreikusi gabe geratu diren gaietan, hauek dira oinarri juridiko gisa kontuan hartzeko arauak:

– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegitza Dekretua, martxoaren 26ko 1/2015 Legearen bitartez aldatutakoa.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta berau garatu duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

2022ko irailaren 16a, ostirala

I. ERANSKINA

IKASTURTEA ETA IKASTARO-MODULUAK

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren arabera, honako hauek dira, HABEren dirulaguntza-deialdian partaide izateko, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro guztiek 2022-2023 ikasturtean euskara-ikastaroak antolatzeko jarraitu beharreko irizpideak:

1.– Ikasturtea.

Euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroen ikasturtea, 2022ko urriaren 1ean hasi eta 2023ko irailaren 30ean amaituko da. Betiere, helduen euskalduntzearen antolaketaren baitan, irizpide hauen ardatzetan:

– Taldeek honako gutxienerako ikasle-kopurua izan beharko dute HABEk diruz lagunduak izateko, ikastaro bakoitzaren hasieran taldeak eratzeko garaian, talde bakoitza kokatua dagoen herriaren neurriaren arabera:

Biztanle-kopurua	< = 5.000	5.001 – 10.000	10.001 – 25.000	> 25.001
Talde bakoitzeko gutxienerakoa	6	7	8	9

Barnetegi erako ikastaroetako taldeek, edozein herritan antolatuta ere, 10.001-25.000 biztanleko herrietako tratua bera izango dute.

Ikasturte hasieran edo ikasturtean zehar, osasun-agintariek edo eskumena duten gainerako agintariek ezarritako prebentzio eta higiene-neurriak aldatzen badira, zehaztutako gutxienerako ikasle-kopuruak HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez aldatu ahal izango dira.

– Taldeei matrikulazioaren jarraipenerako aplikazio informatikoan aipatutako gutxienerako ikasle-kopurua irailean betetzen denean hasierako itxiera eman beharko zaie (taldea eratuta geldituko da).

– Diruz lagunduko diren orduak gutxienerako ikasle-kopurua bete eta hasierako itxiera ematen den egunetik ikastaroaren azken egunera artekoak izango dira.

– Iraila baino lehen hasi eta urritik aurrera luzatzen diren ikastaroak, bi ikasturtetan zatituko dira, irailaren 30era bitartekoa batean eta urriaren 1etik aurrerakoa beste ikasturtera bilduz.

Matrikulazioaren jarraipenari dagokionez, HABEren zuzendari nagusiak ikasturtearen hasierako ebazpenaren bitartez jakinaraziko ditu urrian hasten diren ikastaroen datuak aurkezteko azken eguna, baita azarotik aurrera hasten diren ikastaroen datuak aurkezteko epeak ere.

2.– Aurrez aurreko ikasteredua.

Aurrez aurreko ikastereduen oinarria taldea da, gutxienez irakasle baten ardurapean ikasgela batean aurrez aurre eta taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroa burutzen duen taldea, hain zuzen ere. Dirulaguntzaren esleipenean, deialdi honen I. eranskinaren 1. atalean araututako gutxienerako ikasle-kopuruak betez gero, taldearen ordu teorikoak eta kitapenean burututakoak hartuko dira kontuan. Irakasleari taldean emandako orduak aitortuko zaizkio eta taldean aritutako irakasle gutxienerako orduen batuketan gehienez taldean emandakoak izango dira.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean maila bakoitzerako ezarritako erreferentziarako irakastorduen kopuruak kontuan hartuta, euskaltegiek antolatuko dituzten ikastaroek ondoren zehazten diren gutxieneakoak bete beharko dituzte:

2.1.– Urritik ekainera bitarteko ikastaroak.

a) Barnetegi iraunkorretako barnetegi ikastaroak: egunean 6 irakastordu eta gutxienez 80 irakastordu osatzen dituzten ikastaroak.

b) Euskaltegietako eta barnetegi iraunkorretako kanpo ikastaroak: A1 mailan gutxienez 125 irakastordu jarraian eta A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetan gutxienez 165 irakastordu jarraian osatzen dituzten ikastaroak.

2.2.– Udako ikastaroak, ekainetik irailera bitartekoak.

a) Euskaltegietako eta barnetegi iraunkorretako udako kanpo ikastaroak: gutxienez 80 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe.

b) Euskaltegietako eta barnetegi iraunkorretako udako barnetegi ikastaroak: 2, 3 edo 4 aste-koak eta egunean, gehienez, 8 irakastordu.

c) Baldintza hauetatik kanpo udako ikastaro hauek antolatu ahal izango dira ekainetik irailera bitartean B1, B2, C1 eta C2 mailetan, zenbait kolektibo edo helburu zehatzetarako direnean:

c.1) Udako aurrez aurreko ikastaro trinkoak: gutxienez 30 irakastordu, era jarraituan eta zatikatu gabe. Ikastaro hauetako ikasle guztien abiapuntua, salbuespenik gabe, lortu nahi den mailaren aurreko azpimaila izango da.

c.2) Uda-ikastaroak barnetegian: aste beteko udako barnetegiak eta egunean gutxienez 8 irakastordu. Ikastaro hauetako ikasle guztien abiapuntua, salbuespenik gabe, lortu nahi den mailaren aurreko azpimaila izango da.

c.1 eta c.2 azpialtal hauetako udako ikastaroek, HABEren dirulaguntzapean onartuak izateko, maila burutzeko eta trebetasun zehatzak lantzeko helburua izan behar dute eta ikasleek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

– Ikasturtean zehar euskaltegiren batean ikasitako ikasleak izan.

– Euskara-mailen agiriak eskuratzeko ikasturteko lehen azterketa-deialdian aurkezteko aukerarik izan ez duten edo egiaztatze-probak gainditu ez dituzten ikasleak izan.

2.3.– Maila burutzeko ikastaroak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduak ezartzen duen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak burutzeko helburu zuzena duten ikastaroak:

a) A1 maila burutzeko helburua duten ikastaroak: gutxienez 60 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe; ikasle guztien abiapuntua A1A0 salbuespenik gabe.

b) A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak burutzeko helburua duten ikastaroak: gutxienez 120 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe; ikasle guztien abiapuntua, salbuespenik gabe, burutu nahi den mailaren aurreko azpimaila.

Aurreko puntuetan zehaztutako aurrez aurreko ikastaro-moduluetako orduen kontaketa emandako irakastorduen izango da, hauen arteko atsedenaldirik kanpoan utzita.

3.– Tutorizatutako autoikaskuntza ikasteredua.

Tutorizatutako autoikaskuntza ikastereduan oinarria ikaslea da. Dirulaguntzetarako, berriz, esleipenean ikasleak egiten duen matrikula izango da oinarria eta kitapenean atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera burututakoa izango da.

Autoikaskuntza burutzeko euskaltegiek edo autoikaskuntzarako zentroek IKTen bidezko plataformak erabili ditzakete eta ikaskuntza hiru ataletan banatuko da:

– Ikasleak bakarkako lana egiteko saioak. Atal honetara ikasleak bakarka egindako jarduera bilduko da. Halaber, euskaltegien edo autoikaskuntzarako zentroen erabakiz, ikasleen arteko interakzioa bultzatuz trebetasun zehatzak lantzeko helburuarekin taldean burutu daitezkeen jarduerak ere bilduko dira. Honelakoetan, ekintza horien burutzapenean taldean emandako orduak parte hartu duen ikasle bakoitzari zenbatuko zaizkio. Dirulaguntzetarako kasu guztietan bakarkako saioetako orduak atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera hartuko dira kontuan gehienez.

– Mintzamina edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioak. Atal honetako saioetan euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikasleak taldeetan elkartuta burutzen saiatuko dira. Saio hauetan ikasleak hartu dituen orduak zenbatuko zaizkio ikasle bakoitzari. Irakasleari, berriz, atal honetan ikasleekin emandako orduak aitortuko zaizkio. Dirulaguntzetarako mintzamina edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioetako orduak atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera hartuko dira kontuan gehienez.

– Tutoretza-saioak. Ikasle bakoitzarekin burutuko dira. Saio hauetan ikasleak hartu dituen orduak zenbatuko zaizkio ikasle bakoitzari. Irakasleari, berriz, atal honetan ikasleekin emandako orduak aitortuko zaizkio. Dirulaguntzetarako tutoretza-saioetako orduak atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera hartuko dira kontuan gehienez.

3.1.– Ikastaro-moduluak.

Euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentroek antolatu ditzaketenak:

a) 190 eskola-ordu matrikula bakoitzeko, 9 hilabetez bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta eta hasiera hilabetea urria, azaroa, abendua edo urtarrila delarik. Ikasle bakoitzeko ikasturtean zehar matrikula bakarra onartuko da.

b) 75 eskola-ordu matrikula bakoitzeko, 3 hilabetez bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta eta hasiera hilabetea urria, urtarrila, apirila edo uztaila delarik. Matrikula bakoitza 190 eskola-orduko modulu estandarraren 0,40 izango da.

c) 25 eskola-ordu matrikula bakoitzeko udako ikastaro berezia, bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta, uztailetik irailera bitartean B1, B2, C1 eta C2 mailetan, zenbait kolektibo edo helburu zehatzetarako denean. Matrikula bakoitza 190 eskola-orduko modulu estandarraren 0,13 izango da. Azpiatal honetako udako autoikaskuntzako ikastaroei, HABEren dirulaguntzapen onartuak izateko, maila burutzeko eta trebetasun zehatzak lantzeko helburua izan behar dute eta ikasleak ondoko baldintzak bete behar ditu:

– Ikaslearen abiapuntua, salbuespenik gabe, lortu nahi den mailaren aurreko azpimaila izango da.

– Ikasturtean zehar euskaltegiren batean ikasitako ikaslea izan.

– Euskara-mailen agiriak eskuratzeko ikasturteko lehen azterketa-deialdian aurkezteko aukerarik izan ez duen edo egiaztatze-probak gainditu ez dituen ikaslea izan.

– Ikasleko uztailetik irailera bitartean matrikula bakarra onartuko da.

3.2.– Bestelako baldintzak.

Ikasleak bakarlanean emandako ordutzat astean 10 ordu arteko jarduna onartuko da dirulaguntzetarako. Beraz, ikastaroaren gehieneko orduak eman eta hartutako mintza-saio edo ikasleen arteko elkarreragina lantzeko saioa eta tutoretzakoak gehi ikasleak bakarlanean emandako orduen batura izango da.

Gainera, ikasle bakoitzaren jardueragatik diruz lagunduko diren 6 ordutatik batek, gutxienez, hartutako mintza ordukoa edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoa izan beharko du. Salbuespen gisara, A1 eta A2 mailetara bitarteko jardueran diruz lagunduko diren 10 ordutatik batek, gutxienez, izan beharko du mintzakoa edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoa. Mintzamen-saioak edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoak aurrez aurre eta euskaltegian edo autoikaskuntzarako zentroan zein IKTen bidezko bideokonferentziaz burutuko dira eta gutxienez saio bakoitzean bi ikaslek parte hartu beharko dute. Kasu bietan, aurrez aurreko edo bideokonferentziaz eginiko mintza-saioak edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoak ikastaroaren zehar indarrean egongo diren asteko egun eta ordutegi zehatzetan burutuko dira.

Tutoretza-saioetan, bakarlanean emandako 10 orduko, gehienez 30 minutu lagunduko dira diruz. Tutoretza-saioak aurrez aurre zein IKTen bidezko bideokonferentziaz burutuko dira.

HABEko teknikariek edozein unetan dirulaguntzaren onuradunek autoikaskuntza bideratzeko erabiltzen dituzten plataformetara sarbidea izango dute, burutzen diren jarduerak ikusteko.

Euskaltegi publikoen kasuan irakasle batek une berean hasieratik amaierara autoikaskuntzako 42 matrikula osatzen duten ikasleen tutoretza (astean ordubeteko mintza-saioak eta dagozkion tutoretza-saioak) oinarritzat hartuko da, horren arabera neurtuz bakoitzaren dedikazioa. Era berean, ikasle/orduak kontabilizatzerakoan, bakarkako jardun, mintza- eta tutoretza-saioei dago kienez, eman eta gauzatu ez den ordua ez zaio ikasleari emandakotzat hartuko eta, ondorioz, ez zaio datutegian jarriko.

IKTen bidezko ikaskuntza-prozesuak bere osotasuna gorde dezan, trebetasunen arteko oreka gorde beharko da, 179/2003 Dekretuak bere 6. artikuluan esaten denari jarraituz, non gutxieneko bezala eskatzen baita «erabilitako sistemak aurrerapen egokia eta orekatua bermatzea trebetasun guztietan eta bakoitzean, mintzamina barne».

4.– Jardun biko ikasteredua.

Jardun biko ikastereduaren oinarria taldea da, gutxienez irakasle baten ardurapean ikasgela batean aurrez aurre eta taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroari dagozkion taldeko jarduerak burutzen dituen taldea, hain zuzen ere, eta horrekin batera, ikasle bakoitzak bakarka burutu behar duen jardunarekin eta ikasleen tutoretza-saioekin osatzen den ikasteredua da. Dirulaguntzaren esleipenean, deialdi honen I. eranskinaren 1. atalean araututako gutxieneko ikasle-kopuruak betez gero, taldearen aurrez aurreko ordu teorikoak eta gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen araberrako tutoretza-saioetako orduak hartuko dira kontuan. Kitapenean, berriz, taldearen aurrez aurreko jardunean burututakoak eta gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera ikasleek burututako tutoretza-saioetako orduak hartuko dira kontuan. Irakasleari, batetik, taldean aurrez aurreko jardunean emandako orduak aitortuko zaizkio eta taldean aurrez aurreko jardunean aritutako irakasle guztien orduen batuketa gehienez taldean emandakoak izango dira;

eta bestetik, gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera burututako tutoretza-saioetan ikasleekin emandakoak.

Bestalde, HABEren dirulaguntzen barruan onartuak izan daitezen, ikastaro hauek, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izan behar dute aurrez aurreko jardunean, bakarkako jardun tutorizatuan eta tutoretza-saioetan banatuta:

a) Aurrez aurreko jardunean, gutxienez 40 eta gehienez 120 irakastordu.

b) Bakarkako jardun tutorizatuan, gutxienez, aurrez aurreko jardunaren irakastorduen kopurua. Atal hau ez da diruz lagunduko.

c) Tutoretza-saioetan, aurrez aurreko jardunean emandako 10 orduko, gehienez 30 minutu lagunduko dira diruz.

Tutoretza-saioak aurrez aurre edo bideokonferentziaz egin ahal izango dira.

5.– Urrutiko aurrez aurreko talde-irakaskuntza.

Urrutiko aurrez aurreko talde-irakaskuntzaren oinarria taldea da, gutxienez irakasle baten ardurapean IKTen bidezko plataformak erabiliz taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroa burutzen duen taldea, hain zuzen ere. Dirulaguntzaren esleipenean, deialdi honen I. eranskinaren 1.a) atalean araututako gutxienerako ikasle-kopuruak betez gero, taldearen ordu teorikoak eta kitapenean burututakoak hartuko dira kontuan. Irakasleari taldean emandako orduak aitortuko zaizkio eta taldean aritutako irakasle guztien orduen batuketa gehienez taldean emandakoak izango dira.

5.1.– Ikastaro-moduluak.

Aurrez aurreko ikastereduan onartzen diren guztiak erabili ahal izango dira.

5.2.– Bestelako baldintzak.

5.2.1.– Urrutiko aurrez aurreko saioetan ikastaro-moduluaren ordu guztiak emango dira eta ikastaldearen jarduerak ordutegi zehatzetan eta ikasle guztiekin batera burutuko dira. Urrutiko aurrez aurreko saioek gutxienez 40 minutuko iraupena izango dute eskola-eguneko.

5.2.2.– Urrutiko aurrez aurreko saioak edozein e-learning edo b-learning plataforma erabiliz (GoToWebnar, Zoom, Jitsi, Microsoft Teams, Moodle/MoodleCloud,...) egingo dira.

5.2.3.– Ebaluazioak e-learning edo b-learning plataformak (Google Forms, Questbase, Socrative...) erabiliz burutuko dira.

5.2.4.– HABEko teknikariek edozein unetan plataforma horietara sarbidea izango dute, burutzen den jarduera ikusteko.

5.2.5.– Era honetan antolatuko diren ikastaldee 70 kolektiboa jarriko zaie matrikulazioaren jarraipenerako Q87 izeneko aplikazioan.

6.– Helburu zehatzetarako ikastaro bereziak.

6.1.– AISA ikastaroak: Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketarako Sailarekin bat antolatutako ikastaroak. 60 irakastordu. Euskaltegiak ikastaro berezi hauek hasi baino lehen bideratu beharko du eskabidea, eta bukaeran ebaluazio-fitxa osatua helaraziko du HABEra.

6.2.– Dendaketan eta Ostalaritza ikastaroak: 60 irakastordu. Euskaltegiak ikastaro berezi hauek hasi baino lehen bideratu beharko du eskabidea, eta bukaeran ebaluazio-fitxa osatua helaraziko du HABEra.

6.3.– Herri-administrazioek, erakunde pribatuek eta gizarte-eragileek, euskararen sustapena eta erabileraren normalizazioa helburu izanik, ESEP, LanHitz edo gutxienez udal-mailako zein erakunde pribatuen nahiz gizarte-eragileen plangintza batean sortuak eta txertatuak dauzkaten ikastaroak: gutxienez 60 irakastordu.

Kasu bakoitzean, eskabidearekin batera dagokion erakundeak egin edo onetsitako txostena aurkeztu beharko du euskaltegiak. Eskabidean ikastaro bereziaren bitartez lau hizkuntza-trebetasunetan lortu nahi diren helburuak zehaztuko dira. Honelako ikastaroen eskabideek hamar eguneko epean ezezko erantzuna jasotzen ez badute, onartuak izan direla ulertuko da.

6.4.– Euskaltegietan aurrez aurreko jardunean trebetasun zehatzak lantzeko Gabonetako eta Aste Santuko ikastaro bereziak: egunean 6 edo 7 irakastordu, eta gutxienez 30 irakastordu.

6.5.– Barnetegi iraunkorretan trebetasun zehatzak lantzeko Gabonetako eta Aste Santuko barnetegi ikastaro bereziak: egunean 6 edo 7 irakastordu, eta gutxienez 30 irakastordu.

7.– Malgutasuna.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako ikastaroez gain, euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarritako irizpideen arabera helduen euskalduntzearen esparruan beste ikastarorik emateko asmorik badu, eskabide arrazoitua aurkez lezake HABEren zuzendari nagusiaren aurrean ikastaroa hasi baino hamabost egun lehenago. Zuzendaritza honek helduen euskalduntzearen sustapenari begira eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarritako lehentasunak kontuan hartuz ebatziko du eskabidearen gainean. Erabakia ezezkoa balitz, HABEren finantzaketatik at gelditzen dela ulertuko da.

II. ERANSKINA

Udal titulartasuneko euskaltegi publikoentzako dirulaguntza – 2022-2023

(Kodea: 1046207)

Egoitza Elektronikoa eskuragarri dagoen formularioa

Instrukzio-organo hartzailea:

HABE, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Konektatutako pertsona: _____

Profil bat baino gehiago dituzu. Adierazi, mesedez, zein den eskatzailea:

- Pertsona/entitate gisa ari naiz espedientean
- Ordezkarri gisa ari naiz

Espedientearen pertsona interesdunak:

*Identifikazio-dokumentua: _____ *Zenbakia: _____

*Izena: _____

*Lehen abizena: _____ *Bigarren abizena: _____

*Sexua: _____

Jakinarazpen-hartzailea:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio: _____

Ondorengo datuak Administrazioak jakinarazpenaren jasotzaileari buruz dituenak dira: _____

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

*Oharra: 10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzeko ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.***Abisuak jasotzeko datuak**

* Posta elektronikoa _____

Mugikorra _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

- Euskara
- Gaztelania

OINARRIZKO DATUAK

Zer lurraldetan daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak:

*Lurraldea: _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Eskatzaileak aitortzen du:

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak "Beste finantzaketa-iturri batzuk" eremuan zehaztu beharko dituzu).
- Eskatu du helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Beste finantzaketa-iturri batzuk" eremuan zehaztu beharko dituzu).

Erantzukizunpeko adierazpenak

- HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan inskribatuta dago, eta datu guztiak egunean dauzka.
- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Ez da dirulaguntzen itzulketagatik hasitako eta artean izapidetzen ari diren prozeduretan parte, eta horrelakoren batean parte hartu izanez gero, prozedura horiek amaituta egon behar dute.
- Onuradunak giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko ditu eta, ondorioz, ezin izango ditu agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.
- Onuradunak HABEri helarazten dizkion datuen gaineko interesdunei beren datuekin gauzatzen duen tratamenduari eta transmisioari buruzko informazioa aldeztu aurretik helarazi die.
 - * Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
 - * Deklaratzen dut hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

ORGANO INSTRUKZIO-EGILEAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA

HABEk ofizioz egiaztatuko ditu elkarreragintasun sistemen bidez, Zerga zein Gizarte Segurantza arloko betebeharrak egunean dituela euskaltegiak.

Ofiziozko egiaztatze-prozedura honen aurka egonez gero, klik egin hurrengo laukian:

- Aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz egiaztatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: onuraduna datuok ofizioz egiaztatzearen aurka agertzen bada, Zerga zein Gizarte Segurantza arloko dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

- Pertsonalaren Fitxa.
- 2022/2023 ikasturterako Plana.